

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

ELIZATXO AUZOKO URBANIZAZIOA OSATZEN DUTEN LURZORUEN (BIDEAK ETA EREMU LIBREAK) TITULARTASUNA ERREGISTROAN ERREGULARIZATZEA (GARAI BATEKO HERNANIKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN D-1 POLIGONOA)

Udal zerbitzu teknikoek agiri bat prestatu dute, eta horren helburua, Elizatxo auzoko urbanizazioa eta eremu libre publikoak osatzen dituzten finken titulartasuna erregistroan arautzeari ekitea da, hots, 1954ko abenduaren 20ko Hernaniko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko D-1 poligonoari dagokiona.

Poligono hori D-1 Poligonoaren (Elizatxo) Plan Partzialaren bidez ordenatu zen, eta Arkitektura eta Hirigintzako Batzorde Probintzialak behin betiko onartu zuen 1969ko martxoaren 24an hartutako erabakian.

Planeamenduko dokumentu honetako xedapenekin eta hori ondoren garatuko dutenekin bat etorritik, proposatutako antolamenduan aipatutako esparruan jabetza eta erabilera publikora xedatutako lurzorua (bideak eta eremu libreak) Hernaniko Udalari doan laga beharrekoa zen.

D-1 poligonoa eraikitzeke prozesua hasi zenean ez ziren bete orduan indarrean zegoen legediak eskatzen zituen betebeharrak (1956ko Lurzoruaren Legea hasiera batean eta 1975koa ondoren), eta urbanizazio eta eraikuntza prozesua bukatu zenean ez ziren jabari publikoaren alde aipatutako lagapenak sinatu.

Beharrezkoa da finka horien titulartasuna arautzea eta Jabetzaren Erregistroan jasotzea, uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuaren 30.2 artikulua xedatzen duenaren arabera (Errege Dekretu horren bidez hirigintza-ekintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzko Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak onartzen dira), Herri Administrazioaren Ondasunei buruzko azaroaren

La Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 25 de abril del 2024 adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

REGULARIZACIÓN REGISTRAL DE LA TITULARIDAD DE LOS SUELOS QUE COMPONEN LA URBANIZACIÓN (VIALES Y ZONAS LIBRES) DE ELIZATXO AUZOA, ANTIGUO POLÍGONO D-1 DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE HERNANI.

Los servicios técnicos municipales han elaborado un documento cuyo objeto es la regularización registral de la titularidad de las fincas que componen la urbanización y espacios libres públicos de Elizatxo auzoa, antiguo polígono D-1 del Plan General de Ordenación Urbana de Hernani de 20 de diciembre de 1954.

Dicho polígono fue ordenado mediante el Plan Parcial del Polígono D-1 (Elizatxo), que la Comisión Provincial de Arquitectura y Urbanismo aprobó definitivamente en acuerdo adoptado el 24 de marzo de 1969.

De acuerdo con las determinaciones de este documento de planeamiento y las que lo desarrollan posteriormente, el suelo destinado a propiedad y uso público (viales y espacios libres) en el ámbito de la ordenación propuesta debía ser cedido gratuitamente al Ayuntamiento de Hernani.

Cuando se inició el proceso constructivo del Polígono D-1 no se cumplieron las obligaciones exigidas por la legislación entonces vigente (Ley del Suelo de 1956 en un principio y la de 1975 posteriormente), y una vez finalizado el proceso de urbanización y edificación no se suscribieron las mencionadas cesiones a favor del dominio público.

Es necesario regularizar la titularidad de dichas fincas e inscribirlas en el Registro de la Propiedad, conforme a lo dispuesto en el artículo 30.2 del Real Decreto 1093/1997, de 4 de julio, por el que se aprueban las normas complementarias al Reglamento para la ejecución de la Ley Hipotecaria sobre Inscripción en el Registro de la Propiedad de Actos de Naturaleza Urbanística, en el artículo 36 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio Bienes de la Administración Pública, y



3ko 33/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta abuztuaren 28ko 1373/09 Errege Dekretuaren 48. artikuluan finkatutakoarekin bat etorritik; azken horren bitartez, ondasunen jabetzari buruzko dokumentu idatzirik izan gabe, ondasunen udal jabetza-eskubidea izateari buruzko araudia onartu zen.

1093/1997 Errege Dekretuaren 31. artikulua beste hau ezartzen du:

«Aurreko artikulua 2. paragrafoko kasuan, organo jarduleak eman duen ziurtagiria honako hau jasoko da:

1. Administrazio jardulari laga beharreko finkak okupatzea erabakitzen duen ebazpena, horien xedea edo lagapena zehaztuz, planak ezarritakoaren arabera.

2. Ebazpenaren aurreko espediente laga beharreko finken titularrei jakinarazi zaiela eta hogeita hamar egunetik gorako epea eman zaiela, bidezkoa izanez gero, banaketa berdina egiteko proiektuaren izapideak egitea eska dezaten.

3. Eskabide hori egin edo ez, eta egin bada, lagapenaren oinarri den plangintzak ahalbidetu edo legezkatu duen eraikuntza guztiz sendotuta izateagatik, eskatutako banaketa berdina bidezkoa ez dela azaltzen duen ziodun ebazpenaren edukia.

4. Alde bakarreko okupazioa erabaki zuen administrazio-ebazpenaren kontra ez dagoela administrazio- edo jurisdikzio-errekurtsorik, izan daitekeen berrikuspen-errekurtsioa kenduta».

Ikusirik horri buruz egindako txostena eta Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1.j artikuluan xedatutakoa.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen Batzordeak 2024ko apirilaren 18ko bilkuran **AHO BATEZ** emandako irizpena

en el artículo 48 del Real Decreto 1373/09, de 28 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, mediante el que se aprueba la normativa sobre el derecho de propiedad municipal de bienes careciendo de documento escrito sobre la propiedad de los mismos.

El artículo 31 del Real Decreto 1093/1997 establece lo siguiente:

«En el caso previsto en el apartado 2 del artículo anterior, en la certificación expedida por el órgano actuante deberá constar:

1. La resolución en la que se acordó la ocupación de las fincas que han de ser objeto de cesión a favor de la Administración actuante, con especificación de su destino a cesión, conforme a las previsiones del plan.

2. Que el expediente previo a la resolución ha sido notificado a los titulares registrales de las fincas objeto de cesión y que se les ha concedido un plazo no inferior a treinta días para solicitar la tramitación del proyecto de equidistribución, si fuera oportuno.

3. Si hubo o no dicha solicitud y, en caso afirmativo, los términos en que se dictó la resolución motivada en la que se exprese que no resulta procedente la equidistribución solicitada por haberse consolidado totalmente la edificación permitida o legalizada por el planeamiento en cuya virtud se exige la cesión.

4. Que la resolución administrativa en la que se acordó la ocupación unilateral no es susceptible de recurso alguno, administrativo o jurisdiccional, salvo el posible recurso de revisión.

Visto el informe emitido al respecto y en virtud de lo dispuesto en el artículo 21.1.j) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Visto el dictamen **POR UNANIMIDAD** de la **Comisión de desarrollo local de 18 de abril del 2024**

Se acuerda **POR UNANIMIDAD**



Horiek horrela hau erabaki da **AHO BATEZ**

BAT.

- a) "Elizatxo auzoko urbanizazioa osatzen duten lurzoruen (bideak eta eremu libreak), Hernaniko garai bateko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko D-1 poligonoa, osatzen duten lurzoruen titulartasuna erregistro aldetik erregularizatzea" izeneko dokumentuari hasierako onarpena ematea. Laga beharreko finken titularrei berriaz adierazi behar zaie aipatutako dokumentua izapidetzerakoan, Korporazioak Elizatxo D-1 poligonoko lurzoru publikoan edo urbanizazioan jasotako lurzoruen gaur egungo Jabetzako Erregistroko inskripzioak baliogabetuko dituela, eta horren ondorioz, Hernaniko Udalaren alde inskribatzeari ekingo dio (emaitza gisa lortuko den finkan multzokatuta).
- b) Aipatutako dokumentua jendaurrean jartzea, laga beharreko finken titularrei entzuteko 30 eguneko epea emanez; tarte horretan egokitzat jotzen dituzten alegazio guztiak aurkeztu ahal izango dituzte.
- c) Jabetzaren Erregistroari eskatuko dizkio kaltetutako finka guztien titulartasuna eta kargen ziurtagiria, kaltetutako finka bakoitzaren inskripzioaren ertzeko aurreneurritzko idatzoharrak, txosten honetako hasierakoak, Hirigintza Kudeaketari buruzko Araudiko 102. xedapenei jarraikiz.
- d) Laga beharreko finken titularrei hogeita hamar eguneko epea ematea, bidezkoa izanez gero, birpartzelatzea egiteko proiektuaren izapideak egitea eska dezaten.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau

UNO.

- a) Aprobar inicialmente el documento "Regularización Registral de la Titularidad de los Suelos que Componen La Urbanización (viales y zonas libres) del Barrio Elizatxo, Antiguo Polígono D-1 Del Plan General De Ordenación Urbana De Hernani". Debe advertirse expresamente a las entidades titulares de las fincas objeto de cesión que en la tramitación del citado documento la Corporación cancelará las inscripciones en el actual Registro de la Propiedad de los terrenos recibidos en la urbanización o en el suelo público del polígono Elizatxo D-1, procediendo en consecuencia a su inscripción a favor del Ayuntamiento de Hernani (agrupadas en la finca resultante).
- b) Someter dicho documento a información pública, concediendo un plazo de audiencia de 30 días a las entidades titulares de las fincas objeto de cesión, durante el cual podrán presentar cuantas alegaciones estimen oportunas.
- c) Solicitará del Registro de la Propiedad la titularidad y certificación de cargas de todas las fincas afectadas, anotaciones preventivas al margen de la inscripción de cada una de ellas, de acuerdo con las disposiciones 102 del Reglamento de Gestión Urbanística.
- d) Conceder a las entidades titulares de las fincas objeto de cesión un plazo de treinta días para que soliciten, en su caso, la tramitación del proyecto de parcelación.

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el dictado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrán/n Vd/s. interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente

jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galarazi gabe.

notificación, Recurso Contencioso Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los Arts. 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el Art. 114.c de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrán/n Vd/s. interponer Recurso de Reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

Hernanin 2024ko apirilaren 25ean

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU034905e5-965f-4c95-97d3-a478f9639304**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>